



IBARTARREK LEITZARREI DESAFIOA

Apustua alperrarekin egingo litzateke bartoloetan; ibartarrak leitzarren zain egongo dira hilaren 24ean > 3

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Larunbata
2008-07-19

V.IURTEA 1.490.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Tolosako Arraun Klubekoek osatu duten trainerua. HITZA

TAK-EK EMAKUMEEN TRAINERUA OSATU DU

TOLOSA Hilaren 24ean aurkeztuko dute jendaurrean; egun berean lehendabiziko estropada jokatu dute, Donostiako Kontxan 2

Hutsunea betez taldeak genero indarkeria salatu du


VILLABONA Herrian atxilotu zuten gaztearen kasua salatu zuten herenegun, Udalak babestuta 4

Gari Uranga futbolaria Realetik Castellora joango da

IBARRA Valentziako taldeak 2 urterako fitxatu du Realean lau urtez egon ondoren 3

Asuncionera joateko sarbidea egingo dute N-1etik

TOLOSA Foru Aldundiak proiektua zortzi hilabeteren buruan gauzatzea aurreikusi du 2



Bertaratu zirenek bat egin zuten adierazpenarekin. I. GARCIA

Hainbat eragilek ikurrinaren aldeko deia egin dute

VILLABONA 'Geurea ikurrina' adierazpenean ikurrinak Euskal Herria «batzen» duela diote 4



hitza
elastiko berriak salgai
haur, gazte eta helduentzat

elastikoarekin
poltsa opari!

Tolosako
HITZAren
bulegoan
eskuragarri.

Harpidedunentzat
%25
merkeago

Zatoz Villabonako jaietan
preso eta iheslariarekin afaltzera!

Uztailaren 24tik 31ra
20:00etatik 00:00etara
Berdura plazan



Preso eta iheslarien aldeko JANTOKIA Villabonako jaietan



Alde Zaharra igaro gabe joan ahal izango da Asuncionera. E. EZEIZA

Asuncionera joateko zuzeneko sarbidea egingo dute N-1etik

Tolosa » Proiektua idatzita dago jada eta zortzi hilabeteren buruan gauzatzea espero dute Foru Aldundikoek.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiak zuzeneko sarbide bat egingo du N-1 errepidetik Asuncion klinikara joateko. Sarbide berriak N-1 errepidea eta Izaskun auzora doan GI-3421 errepidea lotuko ditu.

Aldaketa honi esker, eskualdeko erabiltzaileek Asuncion klinikara zuzenean joateko aukera izango dute, Tolosako Alde Zaharra zeharkatu beharrik gabe. Honenbestez, Asuncion klinikara joan nahi

duTen Tolosaldeko erabiltzaileek N-1 errepidetik zuzeneko sarbide bat izango dute.

Sarbide berriaren proiektua idatzita dago eta jendaurrean ikusgai dago. Proiektua errepide berri bat egitean datza, Tolosako iparralde (N-1, Santa Lutz) GI-3421 errepidearekin lotuko duena, Asuncion klinika baino pixka bat gorago. Proiektuaren arabera, 2,3 milioi euro inguruko inbertsioa eta 8 hilabeteko epea beharko dira errepide berria egiteko.

Bestalde, azken hilabeteetan klinikaren inguruan obretan ari dira, aparkaleku berri bat eraikitzeko asmoz. Izan ere, aurrekoa txikiegi geratu zen, eta arazo asko izaten zituen jendeak, koltsultara joateko garaian, toki falta zela eta.

Hilaren 23an aurkeztuko da TAKeko nesken trainerua

Tolosa » Lehendabiziko estropada egun berean jokatuko dute Kontxan; Gipuzkoako Traineruen Txapelketa jokatu da.

ESTIEZEIZA

Aurten, lehendabiziko aldiz, Zaragozako Expo 2008a aitzakiaz hartuz, ACTk (traineruen klubien elkarte) estropada batzuk antolatu ditu Euskadi ordezkatuz. Bertan, Gipuzkoa eta Bizkaiko nesken selekzioak lehiatu dira. Saioak Ebroko uretan jokatu dira eta han izango dira Tolosako neska arraunlariak.

Bestalde, Gipuzkoako Arraun Federazioak, Josetxo Etxeberriaren zuzendaritzapean, estreinakoz, Emakumezkoen Gipuzkoako Traineruen Txapelketa antolatu du. Hau Kontxako uretan jokatu da datorren asteazkenean, 19:00etan hasiko dira estropadak. Bertan parte hartuko dute: Hondarribia, Zumaieta-Getaria eta Tolosako taldeek. Beraien ostean, mutilen txanda izango da.

Tolosan osatu berri den traineruan ondorengo arraunlariak hartuko dute parte: Maialen Azaldegi, Ainhoa Lopetegui, Itziar Saizar, Olatz Ortiz, Amaia Doyague, Izaskun Peñagarikano, Edurne Men-



Tolosako Arraun Klubekoek osatutako trainerua. HITZA

dia, Mirian Elorza, Naroa Urkola, Naiara Gorostiaga, Maitane Garmendia, Joana Alijostes, Nerea Elustondo, Lide Mendikute, Amaia Artola, Irati Ozaita eta Itziar Olasagasti oriotarra.

Tolosako Arraun Klubak emakumearen garapena bultzatu nahi du, eta honetarako, arrauna bide egokia dela uste du. Hori dela eta, txikitatik hasita, bertan ikasteko aukera dute. «Partaidetza eta kirola

la egitea bultzatuz, eta ez konpetibitate».

Hilaren 23an, hau da, datorren asteazkenean aurkeztuko dute ofizialki, udaletxe aurrean trainerua TAKeko neskek. Honez gain, bertan, Udalaren eta TAKen arteko lankidetzaren hitzarmena sinatu du. Ekitaldia 13:00etan hasiko da. Honekin, Tolosako Udalak, arrauna, eta oro har, kirola bultzatu nahi du.



'Oporretan euskaraz'-en azken eguna

ZIZURKIL » Oporretan euskaraz egitasmoaren azken eguna izan zen atzoko. 4 urtetik 12 urte bitarteko haurrek parte hartu dute udaleku ireki hauetan. Atzo denak elkartu ziren Atxulondo kultur etxean eta egin dituzten ekintza guztien errepaso egin zuten argazkien bitartez. Ondoren, haurren talde bakoitzak emanaldia egin zuen eta hamaitakoko batekin eman zitoten amaiera udalekuei. HITZA

Arte garaikidea

DAROS LATINAMERICA collection

TABAKALERA

Erakusketa Tabakaleran
2008-7-19 / 2008-10-5

De martes a domingo
11:30-14:00 / 17:00-20:30
Sarrera doan

Artistak:
Juan Carlos Abami
Fernando Arias
Tania Bruguera
Luis Camnitzer
Jodi Casotte
Jose Damasceno
Antonio Diaz
Gonzalo Diaz
Juan Manuel Echavarría
Regina José Galindo
Alfredo Jaar
Julio Le Parc
Rafael Lozano Hemmer
Oswaldo Macía
Cildo Meireles
Priscilla Monge
Oscar Muñoz
Ernesto Neto
Miguel Ángel Roca
Chemi Rosado-Seijo
Lizano Saavedra
Valeria Sotares
Javier Tellez
Toni

Bitxa gidatuak
18:00 (euskaraz)
Asteburuetan
12:00 / 18:00 (euskaraz)
13:00 / 19:00 (castelano)
11:30 - haurrek (gaztelania)
Taldeak
(also in english and french):
608989298

Tabakalera
Duke de Mendas 52
20012 Donostia-San Sebastián
T: 943-011311

www.tabakalera.eu

berria beka 2008

Norentzat:

- Unibertsitate titulua duten gazte esperientzia gabeentzat
- Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta karrera profesionala bideratu nahi dutenentzat

Kazetaritza arloa: 8 beka, horietako bat bideo informatiboak lantzeko

Ezaugarriak:

- 9 hilabeteko iraupena, urritik ekainera
- Astean lau eguneko jarduna
- 6.255 euroko diru laguntza
- BERRIAk Andoainen duen egoitza nagusian edo ordezkaritzetan

Eskaerak aurkezteko epea: 2008-09-08

Eskaera egiteko orria eta beka deialdia www.berria.info helbidean dago eskuragai

Zuzenketa-itzulpengintza arloa: beka bat

Ezaugarriak:

- 12 hilabeteko iraupena, urritik irailera
- Astean lau eguneko jarduna
- 8.340 euroko diru laguntza
- BERRIAk Andoainen duen egoitza nagusian





Apusturako alperra Baliarriainen eskatzeko asmoa dute Bartoloen antolatzaileek. ASIER IMAZ

Ibarrak desafioa bota dio Leitzari Bartoloetan egin nahi duten apusturako

Jaiak » Apustua alperrekin egingo litzateke eta ibartarrak leitzarren zain egongo dira hilaren 24ean.

ASIER IMAZ

Ibarrako aurtengo Bartoloetan edo Aldarikapen Ekitaldien barnean, abuztuaren 24ean, alperrarekin apustua egiteko asmoa azaldu dute hainbat herritarrek. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA medio desafioa bota diete leitzarrei: «Dena hitz egiteko prest gaude. Uztailearen 24ean, ostegunean, Ibarrako Gaztetxean 20:00etan leitzarren zain egongo gara», aipatu dute apustulariek.

Alperrekin jaietan lanean ari zeko taldea lau neska eta zortzi

mutilen artean osatu dute ibartarrek.

Egon litezkeen zalantzak argitze aldera ibartarren entrenatzailearen, Txantxanen, telefono zenbakia eman dute: 627 60 61 97.

Alperrekin apustua

Erronka hartu ezker, apustua Euskal Herri kalean egingo litzateke abuztuaren 24ean, igandean, 18:00etan. Talde bakoitza 12 tira-tzailek osatuko lukete. Lehen luzea seiren artean egingo lukete, ondoren txanda taldeko beste seiri emanaz. Guztira lau luze egingo litzukete.

Hala ere, baldintza hauek eta apustuaren inguruko beste hainbat, distantzia eta taldearen pisua bi aipatzearen, elkarren artean hitz egin ondoren lotuko litzukete. Zer jokatu ere bertan erabakiko

litzateke, nahiz eta ibartarrekidea batzuk buruan badituzten: «Galtzen duenaren herria afaria eta parranda. Zenbat lagunentzat ostegunean zehaztuko dugu».

Lehen erreakzioak

Ibartarrek giroa berotzeko edo jai kutsua emateko asmoz, ostegunean leitzarrek Gaztetxera agertuko direla uste dute; «parrandarako bezain besteko gaitasuna baldin badute alperrekin, apustua hartuko dutenaren zalantzarik ez dugu».

Leitzan ere iritzi bila ibili ostean, heldu batek honako hau zioen: «Leitzeko pilotarin txapelak deus ez dute balioko apostu horta joaten ez baga. Latza izanen baita ibartar horien harrokerie aguantatzea urte guztin. Leitzarrok kasta erakutsi beharra du».



Gari Uranga ibartarrak ez du Realean jarraituko. JUAN CARLOS RUIZ/ARGAZKI PRESS

Gari Uranga ibartarra Realetik Castello taldera joango da

A. IMAZ

Gari Urangak Reala utzi eta Castello futbol taldean jokatu du datoren denboraldian. Valentziako (Herrialde Katalanak) taldeak bi urterako fitxatu du jokalaria ibartarra. Castello taldeak fitxaketaren berri bere web orrian eman zuen atzo.

Gari Urangak azken lau denboraldiak Realean jokatu ditu. Gaur egun 28 urte ditu eta azken denboraldian 33 partida jokatu ostean bi

gol lortu zituen. Azken asteetan kontratua berrituko zioten zurrumurrua zabaldu bazen ere, azkenean taldea uztea erabaki du.

Urangaren ibilbidea

Jokalaria ibartarra Tolosa CF taldean hasi zen jokatzeko. Hemendik Realera joan zen. Lehen taldera urratsa eman aurretik ordea, Eibar eta Getafe taldeetan jokatu zuen Urangak. Duela lau denboraldi talde txuri-urdinak fitxatu zuen.

Gaur Joxean Tolosa Txapelketako partidak

Amezketak » Gazte eta nagusien mailan txapelketako pilota partidak arratsaldean eta gauean jokatu dituzte.

A. IMAZ

XIX. Joxean Tolosa Pilota Txapelketa aurrera doa. Atzo bezala, gaur ere Amezketako frontoian txapelketako pilota partidak jokatu dira. 16:00etatik aurrera lau partida jokatu dira eta 22:00etatik

aurrera hiru. Gaur jokatu diren zazpi partidetatik hiru gazteen mailakoak izango dira, beste laurak helduen artean jokatu dituzte.

Eskualdeko pilotariak

16:00etatik aurrera jokatu diren partiduen barnean, bigarren norgehiagoketan Urbietak jokatu du Mayoren aurka gazteen mailan. Gure eskualdeetako bigarren ordezkariak, Zubirik, 22:00etatik aurrera jokatu du Biain-en aurka.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Ikurrinaren aldeko deia egin dute hainbat eragilek



Talde eta norbanako ugari parte hartu zuten prentsaurrekoan. I. GARCIA

Villabona « Ikurrinak Euskal Herri osoa eta euskal gizartearen gehiengo «batzen» duela azaldu dute.

IMANOL GARCIA

Villabonako hainbat eragilek eta norbanakook Genero Iturrinaren babes adierazpenarekin bat egin zuten herenegun arratsaldean egin-dako prentsaurrekoan. Bertan ikurrinaren erabiltearen aldeko deia luzatu zuten eta «euskal instituzioetan ikurrinak egin behar da-lio» adierazi zuten. Zuzenbetez, Uus-Toki, Irrintzi eta Behar-Zana elkarteko kideek, Oinkari dantza taldeak, buruhandien konpartsek, Behar-Zanako pilotariak eta herriko hainbat koskirlak egin dute bat adierazpenarekin.

Adierazpenaren azalpen zuzen, ikurrinak Euskal Herri osoa eta euskal gizartearen gehiengo «batzen» duela bitartean, espainiar banderak inposketara, errepresioa eta erabakitzeko daguen eskubiak ukazioa barnabiltzen dituzte. Gainera zuten, Hego Euskal Herriari «gatazka eta talia» sortzaila den ikurra da bandera espainiarra. Prentsaurrekoaren bildutakoak azaldu zuten, errepresioa honi erantzutea euskal herritar orori dagokigu eta Euskal Herri osoan

dagokigu euskal nortasun ikurren defentsa buruz. Horren harira «euskal nortasun ikurren alde eta inposketaren aurka» pausu herriak eramateko asmoa agertu zuten.

Adierazpenarekin bat egindako «gatazka nortasuna eta gatazka ukatu nahi dutenen aurrean zuzteko deia luzatzen digu euskal jendarteak». Bestalde, Euskal Herriari indar eman dauden instituzioak gidatzen dituztenei, «Euskal Herriaren aurkako espainiar agintuak ez bezalako deia luzatu zuten. Horrez gain, euskal herritarren honordatas eta erabakiak defendatzeko deia luzatu zieten adierazpenarekin bat egin zutenek Euskal Herriko alderdi politikoak.

Euskal Herriarentzat eguzek egun «gure izatearen isla diren nortasun ikurrak agertzea, aldarrikatzea eta erabiltzeko berebiziko garrantzia» duela gaineratu zuten.

Jaietan ikurrina jartzeko deia
Prentsaurrekoan ere deia luzatu zieten Villabonako herritarrei Santo festetan zehar ikurrina jartzeko bere etxoetako balkoietan. Herriko okidagietan sigla egongo dira ikurrinak, eskuratu nahi dituztenentzat.

Bestalde, babes adierazpena izateko aukera izango da Santo jaietan zehar.

TESTU BURBUAK
Euskararen erabilpena eragortzeko proiektu bat da.

eka
www.ika21.com

Gozatu Jazza!
2008ko Jazza! 2008

DJC
Eventos y más

Oinkari taldeko gaztetxoak Katalunian

EREDAKIZIOA

Villabonako Oinkari Dantza Taldeko gaztetxoak Katalunian Totsu herriari inguruko dute asteburua. Bertan ekainean estreinatuko zuten iraganaren gogo emandakia



Oinkari Dantza Taldeko gaztetxoak. I. GARCIA

antzezko dute larunbatean izango 21:00ean. Gaurra 70akolei de izango dira Katalunian bidaia borretan, dantzari, musikari, teknikari eta arduradunak konfiantza hartuta.



Genero indarkeriaren aurka elkartuz

VILLABONA «Hutsunea betez emakumeen taldeak dituta eta Udalaren babesarekin, elkarretaraztea egin zuten herenegun arratsaldean. Orain gutxi gizonetako bat atxilotu zuten bikerlekidea jo eta mehatxatu zuela

koan eta horregatik, genero indarkeria salatuz egin zuten elkarretaraztea. Stop emakumeen hilketei, belkiziorri eta erasoetara bai berditzaunari, eskubideei, soldatodunari eta osakidetzari lelopean. I. GARCIA

45 Heineken JAZZALDIA
DONOSTIA 2008 UZTAILA 22-27

Casa Mauri
2008ko aurkeza

DJC
Eventos y más

FCC
FOMENTO DE CONSTRUCCIONES Y CONTRATAS, S.A.

EROSKI
GARBERA URBIL



Iaz Unai Otaño eta Jon Rekondo izan ziren aizkoran. ESTI EZEBIZA

Bihar Albiztur ere santamañetan

Albiztur » Santa Marina auzoan urteroko eguna ospatuko dute, aizkolaria, harri-jasotzaile eta bertsolariekin, arratsaldean.

ERREDAKZIOA

Aurten ere, Albizturko Santa Marina auzoan jaia izango dute bihar egun osoan zehar. Egitarau aldetik ez dute aldaketa handirik egin, beharrik ere ez dagoelako: harri-jasotzaileen eta aizkolarien erakustaldi bikaina izango da arratsaldean, 18:30etik aurrera.

Barre batzuk egiteko aukera ere izango da Santa Marinan, Albizturko gazte talde bat nor baino nor

ariko delako, hauek ere herri kirolletan. Orokorrean, eguna alai izaten da, umorea eta herri kirolak ardatz hartuta.

Iaz Otaño ere izan zen Santa Marinan, baina berarekin Jexux Mari Lasa ariko da, eta ez Jon Rekondo herenegun bezala. Ondoren, Peñagarikano eta Mendiluze bertsolariak ariko dira.

» BIHARKO EGITARAUA

- **12:00.** Meza Nagusia Santa Marinako ermitan.
- **18:30.** Herri kirol saioa. Lehenengo erakustaldia, Aimar Irigoien eta Mari Jose Sardon harri-jasotzaileekin.
- **Ondoren.** Unai Otaño eta Jexux Mari Lasa aizkolarien erakustaldia. Hauekin batera, Albizturko gazteak ariko dira lehiatzen.
- **Jarraian.** Anjel Mari Peñagarikano eta Aitor Mendiluze bertsotan.
- **Egun guztian zehar.** Arandia anaia izango dira trikitixa doinuekin festa alaitzen.

Gipuzkoako lokotx biltze eta aizkora txapelketako finalera joateko

Baliarrain » Mendarora autobusa antolatuko dute hilaren 26rako; lokotxetan Eneko Garmendia ariko da.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako lokotx biltze eta aizkora txapelketa finalerako autobusa Mendarora antolatu du Baliarraingo Jai Batzordeak. Bertan, lokotx biltze txapelketa finalean Eneko Garmendia herritarra ariko da eta autobusean hara joateko izena emateko azken eguna astelehena da, etzi, hain zuzen. Autobusa beti ere, taldea osatuko balitz aterako litzateke. Hilaren 26an joango dira esan bezala, Baliarraingo plazatik abiatuta, 16:30ean. Mendarora 18:30ean iritsiko lirateke.

Baliarraingo Jai Batzordeak, bide batez ere jakitera eman du, lokotx biltze eta aizkora txapelketan parte-hartzaile gisa aritzeko ere aukera dagoela oraindik, haiekin harremanetan jarrita. Jendea animatu nahi du horretan aritzeko, nahiz bertara joateko ere. Mendarotik buelta txapelketa bukatuta egingo lukete. Izena emateko 616 634 909 (Bixente Zubeldia) eta 649 019 440 (Manex Zubeldia) telefono zenbakietara deitu behar da lehen bailehen.

Lokotx biltze eta aizkora txapelketan parte hartu nahi duenak ere aurretik emandako telefono zenbakietara deitu beharko du.

Autobusa norberak ordaindu beharko du eta txapelketa bera dokoa da.



Eneko Garmendia baliarraindarra lokotxen finalean ariko da. N. URIBIZU

Etzi eta etzidamu bi batzorde bilera izango dira iluntzean

Amezket » Hirigintza-obretakoa eta kultura, gizarte ongizate eta ingurumenekoak izango dira bi bilerak 20:30ean.

ERREDAKZIOA

Datorren astean, Amezketako bi batzordetako bilera egingo dituzte: hirigintza-obretarako eta kultura, gizarte ongizate eta ingurumenekoak, hain zuzen. Oraingoan, lau bilera ezberdin egin beharrean bitan banatu dute dena. Astelehenean eta asteartean izango dira bi bilerak, beti bezala, 20:30ean, eta balioanitzeko gelan. Bilera hauek irekiak dira, eta herriko gaiez aritzen dira hauetan.

Hirigintzakoan Larraitz bidez

Hirigintza-obretarako batzordea etzi bilduko da balioanitzeko gelan. Beti bezala 20:30ean izango da bilera irekia. Jorratuko dituzten gaiek hauek dira: Larraitz Bideko urbanizazioa, arau berriztatzaileen aldaketa puntualak, lanen adjudikazioa eta diru laguntza eskaera. Ondoren, obra txikiak eta hirigintza kontsultak ere egin ahal izango dira.

Asteartean kultura, gizarte ongizate eta ingurumenekoak

Kultura, gizarte ongizate eta ingurumenekoak batzordea hurrengo egunean izango da, hau da, asteartean, ordu eta leku berean (balioanitzeko gelan 20:30ean). Kasu honetan eztabaidatu eta landuko dituzten gaiek jaien ingurukoak eta frontoien ingurukoak izango dira besteak beste.

Bartolome Deunaren jaietarako diru laguntza (abuztuaren hirugarren astean dira) eta egitarauari ere helduko diote, gauzak zehazten eta ixten joateko; Ugarteko jaietarako diru laguntza, Ergoneko frontoiaz, EVE Amezketako Udala, hau da; eguzki panelak jartzeko udal instalazioak erabiltzeko zeresio-lagatzeko hitzarmena.

Ur kontsultazioarekin hitzarmena

Tolosaldeko Garatzeneko bazkide izateko estatutuak eta kapital ekarpenen zenbatekoa onartu edo adostuko dute eta Gipuzkoako Ur Kontsultazioarekin sinatu behar den hitzarmena ere izango dute hizpide. Bukatzeko, Amezketako herribidean inventarioari jarritako errekurtsua ikuskatuko dute bileran.

Gutunak

Amezketan igandeko megafoniarekin

Igandeko HITZA egunkarian (2008-07-13), besteak beste, aipagai dira Amezketan jokotutako EHPKko eta Euskal Herriko Herriarte pilotako finalak. Horien harira, antolatzaileen izenaren Xalton Zabalak esandakoak harrigarriak eta kezkarriak iruditu zaizkigu.

Ez dugu eztabaida antzurik nahi, ez baita gure lan-prozedura. Soilik, herritarrek egia osoa jakin dezaten nahi dugu, eta hortik aurrera bakoitzak osa dezala gertaturikoaz bere iritzia.

Taldearen izenean Xaltonek egindako adierazpenen muina honetan labur daiteke: «...Udaletxeak megafonia gabe utzi gaitu... Goizean etorri ginenean mikrofonoa eta amplifikagailua falta ziren... Udalarekin hitz egiteko asmoa dugu... Gaizki hartu dugu, ez baikenuen espero inondik inora».

Megafoniako tresneria aspaldidanik udal txeko ganbaran dago eta gela horretako giltza zinegotzi guztiek daukate, denek.

Bestalde, pilota taldeko inork ez zion udal gorpuzki inori ezer eskatu. Megafonia behar duen guztiak eskatu egiten du, eta ondo-

ren Udalak megafonia eskuratzen die, orain harte eskatu izan duzue hala izan da. Beraz, batetik, Udalak ez dizue zuei ezer ukatu, eta, bestetik, Udalak megafoniarik gabe utzi zaituztela esatea gezur borobila eta interesatua da. Gainera, pilota-festako antolatzaile zarenen ardurapean dago behar zenuen tresneria aurrez ikustea eta funtzionamendua egiaztatzea. Eta, noski, hiko biltegian ez bazeuden zuoi eta ez beste inori zegokizuen udal ordezkarietako edonori horren berri ematea eta uesteko nahasmendua argitzea.

Gertaturikoa espero ez zenutenez, orain Udalarekin hitz egiteko asmoa omen duzue. Hori inoiz ez dago sobera, baina hori, batez ere, aurrez egin behar zenuen, eta ez ura pasata gero hasi presa egiten. Horrela, ziur egon, aurreztuko zenuen horretan 'ezusteak' sorturiko haserrealdia, eta horren ildotik egindako lekuz kanpoko eta gezurrezko aipak.

Beraz, soil-soilik zeuzkan diren huts egiteak eta bere ondorioak ezin zaizkio hainarin eta hain merke udalari leporatu, ez behintzat borondate onez ari bazarete.

Amezketako Gobernu Batzordea. Amezket.



ARAMBURU
Salgai (Tolosa). Etxebizitza. Soldadu kalean, Kale Nagusian eta Martin Jose Iraola kalean.
Salgai (Legorreta eta Iruan). Etxebizitza eraberritzeko.
Salgai. Garajeak. San Frantzisko eta Amarotzen (Tolosa) eta Idoiagan (Ibarra).
Salgai edo alokatzeko (Lasarte). Lokala, tximiniarekin, erdigunean.
Alokatzeko (Tolosa). Etxebizitza San Frantziskon.
Alokatzeko (Tolosa). Garajeak, San Frantziskon, Araba etorbidean eta Batxilerr Zaldibian.

943 65 17 13 / 677 46 09 16



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Amaia Agirre eta Imanol Lazkano, atzo, bertsoan Alegiako karmenetan egindako jubilatuen hamaiketakoan. ESTI EZEIZA



Jubilatuek hamaiketakoan izan zuten eta Gazte Asanbladakoek herri bazkaria egin zuten. N. URBIZU/A. IMAZ



Goian, santamañetako herri kirolen lehia bi taldeetako aizkolariak; behean, trontzalariak lehia bizian. I. GARCIA

Karmenen eskutik datozen santamañak

Jaiak » Alegian festen erdian dauden bitartean, Asteasuko Santamaña auzoan atzo goizean bota zuten jaietako txupinazoa.

N. URBIZU - I. GARCIA

Alegian dagoeneko jaien erdian daudenean, atzo bota zuten Asteasuko Santamaña auzoan txupinazoa. Orain, beraz, biak daude festetan murgilduta. Alegiari dagokionez, atzo jubilatuek Amaia Agirrereren eta Imanol Lazkanorekin bertsoekin gozatzeko parada izan zuten, udaletxeko arkupeetan, haiek gosalduta bitartean. Arratsaldean patata tortillak egiteko unea iritsi zen eta beraiek bakarrik dakiten bezala prestatuko zituzten, goxo-goxoak. Zaila izango zen jakitea zein zen denetan onena.

Alegiako Gazte Asanbladak ere jateko eseri egin ziren noizbait, eta Bulebarrean bazkaria egin zuten zuhaitzen itzalpean. Ondo bete zuten sabela, Mulanborekin poteoan ariko baitziren ondoren eta.

Jatekorik ez zen falta ere santamañetan, Udalak hamaiketako eskaini baitziren baselizaren ingurura joandakoei. Bailarakoen arteko herri kirol lehiaketak urteroko ikusmina piztu zuen eta izerdia ederki bota zuten auzokoei. Aizkolarien arteko lehia izan zen bereziana.

Oraindik bada festa

Alegian, gaurko eguna goizean goizetik hasiko da ere, dianarekin batera arrantza lehiaketa ere izango delako Orian, gaztetxoentzat.

Eguerdian sardina, txorixo eta sagardo dastaketa izango da pla-

zan. Arrakasta izaten du ekitaldi honek beti, aurten ere hala espero dute. Bitartean musika ere izango da. Arratsaldean, berriz, ohitura bihurtzen ari den harri-jasotzaileen III. Txintxarri Saria izango da. Pilota gauetz izango da.

Biharko egunari dagokionez, aldaketa bat egongo da egitarauan. Biell y Rosi Bielorrusiako dantza taldeak Alegian hasi behar zuten haiek prestatuta zuten emanaldi bira, baina bisatuarekin arazoak izan dituzte eta han, etxean gelditu behar izan dira. Horregatik, kontzertu guztiak bertan behera geratu behar izan dira, eta Alegiara, haien ordez, Argentinako Ballet Nazionala joango da. Beste gutxiaz mantendu egingo da, hau da: ordua eta lekua. 19:30ean herriko plazan izango da emanaldi berezi hau.

Dirudienez ez dute taldekideek inoiz arazorik izan Bielorrusiatik ateratzeko, baina aurten hala geratu da eta ez dute Alegia oraingoran behintzat bisitatuko.

Txapelketen eta haurren eguna izango da gaurkoa Santamañan. Mus eta toka lehiaketak egingo dituzte arratsaldean. Bien artean, haurrentzako jolasak prestatu dituzte. Gauean ez da faltako herri afaria eta horrekin batera Laja eta Narbaiza trikitilariak. Goizaldean txokolatada hartzeko aukera izango dute parrandan irauten dutenek.

Bidaia Agentzia
bidaide



Erniobe, 6 behe • VILLABONA • 943 69 26 93

ISKINA eta ETXEBERRIA
edaritegia

Goizean Salda
Gauean martxa! INTERNET

San Juan, 51 eta 59 ALEGIA • Tel.: 943653097

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1.687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Jaiak

■ **Asteasu.** Santamania jaiak:
16:00etan XIV. Mus Txapelketa;
17:00etan haur jolasak; 18:30ean Nazioarteko VIII. Toka Txapelketa; 21:00etan afaria eta erromeria Laja eta Narbaiza trikitilariekin eta goizaldean txokolatada.
■ **Leitza.** Gaztetxearen III. urteurrena: 10:00etan diana eta bizikleta martxa, 11:00etan AHTri buruzko hitzaldia; 14:30ean herri bazkaria; bazkalondoren olimpiadak; 19:30ean kale animazio poteoa Elektro duna taldearekin; argazki eta bideoak; eta 00:00etan Venetta taldea.
■ **Leitza.** Denok Bat guraso elkar-teak antolatuta, ur festa eginen dute igerilekuan, 16:00etatik 18:30era: puzgarriak...
■ **Alegia.** 09:00etan arrantza eta diana; 09:30ean dultzaina; 12:00etan sagardo dastaketa; 12:00etan trikitixa; 18:00etan herri kirolak; ondoren Gipuzkoako Ingude-altxatze Txapelketa; 21:00etan zahargiardea; 22:30ean pilota profesionala eta 00:00etan makro diskoteka. Festa alternati-boak: arratsaldean resaka pasa; iluntzean zahargiardea; gauean Besugo, Mig wai eta Las perras del barrancet taldeen kontzertuak.



Alpino Uzturrek irteera antolatu du Pirinioetara

TOLOSA Pirinioak euskaldunen topagune izaten omen dira uda aldean. Euskara gailur guztietara zabalten da. Horretan laguntzen dute, besteak beste eskualdeko mendi elkarteek. Oraingoan Alpino Uzturre elkartearen txanda izango da. Hain zuzen ere, datorren astebururako, hilaren 25etik 27ra bitarte irteera antolatu dute. Bertan igoko dituzten mendiak Pallas (2.974 metro) eta Lurien (2.826 metro, irudian) izango dira. Elkartetik jakitera eman dutenez, irteeran parte hartu nahi dutenek elkartearen bertan eman dezakete izena datorren astera arte. HITZA

Kirola

■ **Anoeta.** Anoetako Koadrilen Artekoko III. Futbol Txapelketa Anoetako Plazako futbol zelaian. Goizean lehen fasea ospatuko da, eta arratsaldean finalurrekoak eta finala, azken hau 18:00etan izango delarik.

Deialdiak

■ **Alegia.** Espetxe politikaren aurkako manifestazioa egingo dute, eskualde mailara zabaldua, Villabonako plazatik 19:00etan abiatuta.
■ **Tolosa.** Independentziaren aldeko bizikleta martxa Triangulotik 17:00etan abiatuta Tolosan zehar, ondoren ekitaldia eta merienda Otsabi gazte lokalean

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanien eta iritzien erantzunik.

943 671 427

elkarteko koordinatzailea: Iñaki Uzturre
buruzakaria: Iñaki Uzturre
Berriztatzailea: Iñaki Uzturre

A Agurrak



Ongi etorri!

Markel Fernandez De Lezea Lataburu (Tolosa). Asteazkenean jaio zen. Ongi etorri gure artera eta zorionak gurasoei. Familiaren partetik.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak

Mesedez,
ekarri
argazkia
bi egun
lehenago.

agurrak

12. GARAGARDO AZOKA
Uztailaren 17tik 20ra



Ordutegia: 18:00etatik 1:00etara

VILLABONA